BIRPASATZEKO ARIKETA INTERAKTIBOAK

1. GORPUTZAK ELEKTRIFIKATU EGITEN DIRA

1. Osatu esaldi hauek, kasu bakoitzean hitz egokia aukeratuz.

a) Zeinu bereko kargek elkar erakartzen/aldarazten dute, eta zeinu desberdinekoek, elkar erakartzen/aldarazten.

b) Zenbait gorputzek artilezko trapu batez igurztean hartzen duten propietateari karga elektriko/erakarpen elektriko esaten zaio.

c) Elektroskopioek adierazten digu gorputz batek masa/karga elektrikoa duen ala ez.

2. Gorputz batek karga positiboa hartu du beste gorputz batekin igurtzi ostean.

Zein zeinutako karga hartu du bigarren gorputzak?

a) Positiboa.

b) Negatiboa.

c) Ez du kargarik hartu.

3. Kargadun bolaluma bat paper zati batzuetara gerturatzen badugu, bolalumak paper zatiak erakarriko ditu. Aukeratu erantzun egokia eta azaldu zergatik:

a) Paper zati guztien karga elektriko garbia bolalumaren karga elektrikoaren aurkakoa da.

b) Paper zatiak bolaluman itsatsiko dira, oso txikiak direlako.

c) Paper zatiek ez dute karga elektriko garbirik. Baina kargadun bolaluma gerturatzean, paper zatien kargak berrantolatu egingo dira, eta zeinu desberdineko kargek elkar erakarriko dute.

d) Bolalumaren karga paper zatietara pasatuko da, eta ondoren, bolalumak paper zatiak erakarriko ditu.

LIVEWORKSHEETS

4. Esan esaldi hauek zuzenak ala okerrak diren.

a) Bi gorputz igurtzi eta elektrizatzen direnean, zeinu bereko karga hartzen dute. Z / O

b) Zeinu bereko kargek elkar erakartzen dute, eta zeinu desberdinekoek, berriz, elkar aldarazten. Z / O

c) Gorputz batek zein karga mota duen jakiteko, elektroskopioa erabiltzen dugu. Z / O

d) Karga kantitate bera duten objektuek elkar aldarazten dute, eta karga desberdinekoek, elkar erakartzen. Z / O

5. Karga positibodun hagatxo bat elektroskopio batera hurbiltzen badugu, zer gertatuko zaie xaflei?

a) Metalezko xaflak banandu egiten dira; alegia, elkar aldarazten dute.

b) Metalezko xaflak elkartu egiten dira; hots, elkar erakartzen dute.

6. Zertarako erabiltzen dira elektroskopioak?

a) Objektu batek zer masa duen jakiteko.

b) Gorputz batek karga elektrikorik duen ala ez jakiteko.

c) Kargadun gorputzen arteko erakarpenak eta aldarazpenak aztertzeko.

d) Gorputz batek zer karga mota duen jakiteko.

LIVEWORKSHEETS

7. PVC plastikozko hagatxo bat artilezko trapu batez igurzten badugu, hagatxoak paper zati txikiak erakarriko ditu.

a) Baina PVCzko bi haga hurbiltzean, zer gertatuko da? Elkar erakarriko/aldaraziko dute.

b)Eta beirazko eta PVCzko haga bana hurbiltzean, zer gertatuko da? Elkar erakarriko/aldaraziko dute.

LIVEWORKSHEETS